# HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK JASOTZEKO FITXA

## ERAKUNDEAREN DATUAK (eskatzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezen.

| | |
|---|---|
| **1. Erakundearen izena:** | ARTXARA, KOOP. ELKARTE TXIKIA |
| **2. Sektorea:** | Elikagaiak |
| **3. Langile kopurua:** | 6 |
| **4. Webgunea:** | www.elikagunea.eus |
| **5. Erakundearen jardueraren deskribapena:** (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkatua, bezero motak…): | Artxara kooperatibak Elikagunea kudeatzen du.<br><br>Euskal Herriko elikagaien topagunea da Elikagunea, Azpeitiko Azoka Plazan kokaturik. Euskal Herriko elikagaiak sustatuz eta kontsumo eredua eraldatuz, lehen sektorea indartu nahi duen proiektu kooperatiboa.<br><br>Azpeitia zentro bezala hartuta **150 km-ren bueltan ekoizten diren elikagaiak soilik** biltzen dituen gune bat da, heziketa gunea, dastaketa gunea, sukaldea, Basque Label haretegia eta janari dendak osatua. |

## Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da**:**

| | |
|---|---|
| **Solaskidearen izen-abizenak:** | Agurtzane Odriozola |
| **Helbide elektronikoa:** | info@elikagunea.eus |
| **Telefonoa:** | 688 68 86 96 |

KUDEAKETA AURRERATUA EUSKALIT GESTIÓN AVANZADA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

## PRAKTIKA ONAREN AZALPEN LABURRA

| | |
|---|---|
| **1. Praktika onaren titulua:** | **HORNITZAILEEN JARRAIPENA EGITEKO DATU BASEA** |
| **2. Praktika onaren azalpena:**<br><br>**Zer da? Zertan datza?**<br><br>**Nondik dator?**<br><br>**Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?** | Hornitzaileekin ditugun harremanen jarraipena egiteko Elegunek sortutako datu basea (access) da.<br><br>Bertan jasotzen dira hornitzaileen ohiko datuak (IFZ, helbidea, telefonoak, etab.) eta hornitzaileengandik jasotzen ditugun agirien hizkuntza. Horrez gain, bertatik gutun eredu bat igortzeko aukera dugu aurrerantzean harremanak euskarazkoak izan daitezen.<br><br>Aplikazio (datu basea) honetatik hornitzaileen ohiko datuak ez ezik, hizkuntza kudeatzeko aukera daukagu. |

## PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK…

**(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)**

KUDEAKETA AURRERATUA EUSKALIT GESTIÓN AVANZADA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Datu basea irekitzen denean, honako pantaila azaltzen da:




KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hornitzaileen zerrendan klikatuz gero, beste pantaila hau azaltzen da:




Bertatik hornitzaileak gehitzeko, ezabatzeko eta bilatzeko aukera daukagu. Lehen aipatu dugun moduan, beraiengandik jasotzen ditugun agirien kontrola eramatea ahalbidetzen digu. Horrez gain, gutuna bidali botoian sakatuz gero, harremanak euskaraz izateko gutun eredua bidaltzen dio hornitzaileari posta elektroniko bidez:


Izengabea - Mezua (Testu arrunta)
Fitxategia
Mezua
Txertatu
Aukerak
Testuaren formatua
Berrikusi
Laguntza
Esan zer egin nahi duzun
Itsatsi
Ebaki
Kopiatu
Kopiatu formatua
Arbela
Oinarrizko testua
Helbide-liburua
Egiaztatu izenak
Izenak
Erantsi fitxategia
Sinadura
Sartu
Jarraitu
Garrantzi handia
Garrantzi txikia
Etiketak
Bidali
Nori...
belatxikieta@gmail.com
Cc...
Bcc...
Gaia
Erantsita
gutuna.pdf
64 KB

Erantsitako gutuna hauxe da:

ELIKA GUNEA

Jaun / Andere agurgarriak:

Euskararen erabilera normalizatzeko urratsak eta ekintzak modu naturalean eman dira Artxara kooperatiban bere sorreratik.

Artxara kooperatibak bere egiten du euskararen erabileraren normalizazioan gizarteak adierazi duen sentsibilizazio hazkundea, eta, esparru honetako esfortzu orokor horren ekarpen gisa, egindako ibilbidea sendotzeko eta erakundetzeko asmoz, 2018. urtean **euskara-plana** martxan jarri genuen eta Artxara kooperatibak bere **hizkuntza-politika** definitu zuen 2019an. Horrez gain, 2020an Eusko Jaurlaritzaren eskutik, goi-mailako (urrezko) Bikain euskararen kalitate ziurtagiria lortu genuen.

Ondorioz, gure zerbitzu eta lan-hizkuntza euskara izan dadin, gure kanpo nahiz barruko harremanetan euskarari lehentasuna ematea erabaki dugu ahozko zein idatzizko harremanetan.

Hori dela eta, hemendik aurrera, eta, ahal den neurrian, zuekin ditugun komunikazioak ahoz (telefonoz eta aurrez aurre) eta idatziz (fakturak, emate-agiriak, etiketak, e-postak...) **euskarazkoak izan daitezen eskaria egiten dizuegu.**

Besterik gabe, harrera ona emango diozuelakoan eta elkarlanean jarraitzeko apustu eraginkorra denaren uste osoz, jaso ezazue gure agurrik beroena.

Adeitasunez,

Estimados/as señores/as:

Los pasos y acciones para normalizar el uso del euskera se han dado de forma natural en la cooperativa Artxara desde su fundación.

La cooperativa Artxara hace suyo el incremento de la sensibilización social en la normalización del uso del euskera y, como aportación a este esfuerzo general en este ámbito, con el objetivo de consolidar y institucionalizar la trayectoria realizada, en el año 2018 pusimos en marcha el **plan de euskera** y a su vez, la cooperativa Artxara definió su **política lingüística** en 2019. Además, en 2020, de la mano del Gobierno Vasco, obtuvimos el certificado de calidad del euskera Bikain de nivel superior (Bikain de oro).

En consecuencia, para que nuestra lengua de servicio y de trabajo sea el euskera, hemos decidido dar prioridad al euskera en nuestras relaciones externas e internas tanto a nivel oral como escrito.

Por ello, a partir de ahora y en la medida de lo posible, os solicitamos que nuestras comunicaciones orales (telefónicas y presenciales) y escritas (facturas, albaranes,etiquetas de producto, correos electrónicos) sean en euskera

Sin otro particular, en la confianza de su buena acogida y en la convicción de que es una apuesta efectiva para seguir colaborando, reciba un cordial saludo.

Datuen hustuketa botoian klikatuz gero, zerrendatuta aurkezten zaizkigu beraien agiriak zer hizkuntzatan dauden ikusteko eta eskaria (gutuna) bidali zaien jakiteko:


DATUEN HUSTUKETA

# DATUEN HUSTUKETA

| IZENA | ESKARI ORF | ALBARANA | FAKTURA | AURREKONT | ETIKETAK | BESTLAKO D | ESKARIA |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| GAZTA, SL | EUSKARAZ | EUSKARAZ | BI HIZKUNTZA | EUSKARAZ | BI HIZKUNTZA | EUSKARAZ | ☑ |
| BELATXIKIETA, KOOP. | EUSKARAZ | BI HIZKUNTZA | BI HIZKUNTZA | BI HIZKUNTZA | EUSKARAZ | EUSKARAZ | ☑ |
| | | | | | | | ☐ |

IRTEN

KUDEAKETA AURRERATUA EUSKALIT GESTIÓN AVANZADA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA